



## **AJANGIZKO UDALA**

### **AJANGIZKO UDALAK 2018KO ABENDUAREN 12AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

#### **Batzarreratuak:**

#### **Alkatea:**

*Saioa Etxebarria Bilbao andrea*

#### **Zinegotziak:**

*Ainhoa Odriozola Berriatua andrea*

*Doro Astoreka Ajuriagoikoa jauna*

*Alex Zubia Berriozabal jauna*

*Iñigo Valencia Alacano jauna*

#### **Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea:**

*Saioa Pineda Aranburu andrea*

Ajangizko Udaletxean, 2018ko abenduaren 12an, goizeko 10:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

#### **1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-**


2018ko ekainaren 20an ospatutako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2018ko abuztuaren 30ean ospatutako ez ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2018ko azaroaren 13an ospatutako ez ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

#### **2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-**


- **Ekainaren 15eko 2018/051 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Lurren banaketa.
- **Ekainaren 18ko 2018/052 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Lurren banaketa eta batuketa.
- **Ekainaren 22ko 2018/053 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko herri bideak erabiltzeko jarritako bermearen itzulketa.



## AJANGIZKO UDALA

- **Ekainaren 22ko 2018/054 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 77 Andoni etxeko estalkia zaharberitu eta fatxada margotzeko baimena
- **Ekainaren 27ko 2018/055 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-0823-BF matrikuladun ibilgailuari zergaren salbuespena onartzea 2018 urtetik aurrera, bera barne (ibilgailu historikoa).
- **Ekainaren 27ko 2018/056 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-8922-BD matrikuladun ibilgailuari zergaren salbuespena onartzea 2018 urtetik aurrera, bera barne (ibilgailu historikoa).
- **Ekainaren 27ko 2018/057 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ekainaren 27an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/11 faktura erlazioaren onarpena.
- **Ekainaren 27ko 2018/58 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Muxikako Erdu Gazte Elkarteari uztailearen 7rako, udaletxeko karpak (6x3koa bat eta 3x3ko beste bat) erabiltzeko baimena.
- **Uztailaren 2ko 2018/059 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2018ko 2. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroiaren onarpena.
- **Uztailaren 2ko 2018/060 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bai txokora zein plaza eta kultur etxea batzen dituen bidean helbideragarritasun arrapalak eraikitzeko lanak Construcciones Malaxetxebarria Anaiak S.L. enpresari esleitzea, 2018ko ekaianren 25eko 000052-2018 zenbakidun aurrekontuan oinarrituta. (3.690,42 €).
- **Uztailaren 5eko 2018/061 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Urrutia baserriko erdi ekialdeko lurren sastraka kentze lanak Desbroces Ordorika enpresari esleitzea, 2018ko uztailearen 4ko 66 zenbakidun aurrekontuan oinarrituta. (2.662,00 €)
- **Uztailaren 25eko 2018/062 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Helbideragarritasun arrapaletarako barandilaren hornikuntza eta instalazioa Aceder enpresari esleitzea, 2018ko uztailearen 23ko aurrekontuan oinarrituta. (3.182,30 €)
- **Uztailaren 27ko 2018/063 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Uztailearen 27an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/12 faktura erlazioaren onarpena.
- **Uztailaren 27ko 2018/064 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalarri UEMako partaide modura dagokion 2018 urteko kuotaren 2.479.55 euroko bigarren eta azken kuota ordaintzea.
- **Uztailaren 27ko 2018/065 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-5778-BL matrikuladun ibilgailuari zergaren salbuespena onartzea 2019 urtetik aurrera, bera barne (ibilgailu historikoa).
- **Abuztuaren 9ko 2018/066 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Urrutia inguruko lurren itxituraren hornikuntza eta instalazioa Desbroces Ordorika enpresari esleitzea, 2018ko uztailearen 15eko 67 zenbakidun aurrekontuan oinarrituta. (2.389,75 €)
- **Abuztuaren 10eko 2018/067 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2017ko aurrekontuan onartutako obligazioen hasierako saldoa zuzentzeko zehaztapidetzaren onarpena.
- **Abuztuaren 13ko 2018/068 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Abuztuaren 13an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/13 faktura erlazioaren onarpena.
- **Abuztuaren 9ko 2018/069 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Lurren banaketa eskaeraren onarpen eta ezeztapena.
- **Abuztuaren 23ko 2018/070 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendietako hiriguneko argiztapenerako hornikuntza eta instalazioa Electricidad Argi-Ola enpresari esleitzea honako aurrekontu honetan oinarrituta:

M/AJUKUET20180313	2018/03/13	Nuevos puntos de luz en fachada del Kultur Etxe	3.629,23 €	4.391,36 €
-------------------	------------	---	------------	------------




## AJANGIZKO UDALA

M/AJUHEEN20180417	2018/04/17	Iluminación herriko enparantza con proyectores existentes y un nuevo proyector led	1.268,86 €	1.535,32 €
M/AJUMAR20180418	2018/04/18	Ampliación de alumbrado con iluminación led en marquesina y acera opuesta	1.345,90 €	1.628,54 €
M/AJPORIGL20180418	2018/04/18	Iluminación de los pórticos de la iglesia con luminarias colgantes led	1.513,78 €	1.831,67 €
GUZTIRA			7.757,77 €	9.386,89 €

- **Abuztuaren 28ko 2018/071 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Kultur Etxean yoga ikastaroen antolaketa, Soluciones Holísticas Lanú enpresari agintzea, astean bi (2) saiotan eta 58,60 €/saioko kostu orokorrarekin (BEZ kanpo), 2018ko irailaren 13tik 2018ko ekaina bitartean.
- **Irailaren 3ko 2018/072 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Etxez etxeko 2018ko laguntza zerbitzuko 1/2014 espedientea itxiztat ematea eta ondorioz familiak aurkeztutako eskaera onartzea.
- **Irailaren 5eko 2018/073 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Etxez etxeko 2018ko laguntza zerbitzuko 1/2017 espedientearen aldaketa onartzea, astean bost eguneguz (astelehenetik ostiralera) eguneko bi orduko laguntza onartuz (10:35 – 12:35), 2018ko irailaren 6tik aurrera.
- **Irailaren 5eko 2018/074 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Etxez etxeko 2018ko laguntza zerbitzuko 1/2015 eta 1/2016 espedienteen aldaketak onartzea.
- **Irailaren 12ko 2018/075 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kultur Etxeko beheko solairuko garbiketa Gernika Garbiketak S.L. enpresari esleitzea, 2018ko irailaren 6ko O-176/2017 zenbakidun aurrekontuan oinarrituta. (254,10 €).
- **Irailaren 18ko 2018/076 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kultur Etxeko beheko solairuko gelako terrazozko lurraren kristalizazioa Gernika Garbiketak S.L. enpresari esleitzea, 2018ko irailaren 4ko O-173/2018 zenbakidun aurrekontuan oinarrituta (338,80 €).
- **Irailaren 20ko 2018/077 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Irailaren 20an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/14 faktura erlazioaren onarpena.
- **Irailaren 20ko 2018/078 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko baimena.
- **Irailaren 20ko 2018/079 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 42B Arabieta Gane etxerako bidea egokitzeo lanetarako baimena.
- **Irailaren 24ko 2018/080 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika Lumoko San Fidel Ikastolak irailaren 28rako antolatu duen irteerarako Herriko Plaza, frontoia eta Udaletxeko entxufe bat erabiltzeko baimena ematea.
- **Irailaren 28ko 2018/081 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2018ko 3. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroiaren onarpena.
- **Urriaren 1eko 2018/082 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko aisialdi modura skate ikastaroaren antolaketa Club Deportivo Rueditas-i esleitzea, astean saio bat eta partaideko hileko 25€ko prezioan (BEZ kanpo).
- **Urriaren 1eko 2018/083 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko aisialdi modura GAP, Pilates, Pilaflex eta Zumba ikastaroaren antolaketa Itsas Izarrak gimnasia klubari esleitzea, 2018ko urritik 2019ko ekainera, honako zehaztapenaren arabera:

IKASTAROA	EGUNA	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA guztira	PREZIOA saioko	KOSTUA
-----------	-------	-----------	----------------------	----------------	--------



## AJANGIZKO UDALA

GAP	Asteazkenak	17:00-17:45	38	35 €	1.330,00 €
PILATES	Astearte eta ostegunak	19:15-20:15	71	35 €	2.485,00 €
PILAFLEX	Astearte eta ostegunak	20:15-21:15	71	35 €	2.485,00 €
ZUMBA	Astelehen eta asteazkenak	18:15-19:15 1. taldea 19:15-20:15 2. taldea	73 73	40 € 40 €	2.920,00 € 2.920,00 €


- **Urriaren 4ko 2018/084 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta auzoko 78-79 eta 77 etxebizitzan bitarteko bideko zolataren tratamendua Aplicaciones de Pinturas Paint S.L. enpresari esleitzea, 2018ko irailaren 30eko 1104 zenbakidun aurrekontuan oinarrituta (5.007,59 €).
- **Urriaren 4ko 2018/085 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Urriaren 4an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/15 faktura erlazioaren onarpena.
- **Urriaren 8ko 2018/086 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kultur Etxerako step berrien horniketa Inde Educa S.L. enpresari esleitzea 768,18 euroko gastua onartzuz.
- **Urriaren 10eko 2018/087 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 42 etxeko fatxadako beheko erdikaldea konpontzeko lanetarako baimena.
- **Urriaren 16ko 018/088 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U. enpresari, Ajangizko udalerrian dagoen 901165560 transformazio zentroaren aldaketa lanak burutzeko baimena.
- **Urriaren 19ko 2018/089 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 43 etxe barruan ate bat irekitzeko lanetarako apirilaren 19ko 2018/029 dekretuz emandako lizentzia bertan behera ustea eta ondorioz, behin behineko likidazioa osorik deuseztatzea.
- **Urriaren 19ko 2018/090 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Urriaren 4an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/16 faktura erlazioaren onarpena.
- **Urriaren 19ko 2018/091 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2018ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.
- **Urriaren 29ko 2018/092 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko baimena.
- **Urriaren 30eko 2018/093 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko 2018ko gizarte larrialdietarako 1/2018 espediente onartzea, 837,98 euroko kostua onartzuz.
- **Urriaren 31ko 2018/094 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 53 Solaburu baserriko erdi mendebaldeko estalkiaren erreteila lanetarako baimen baldintzatua.
- **Urriaren 31ko 2018/095 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.eri, “Renovación de la red de abastecimiento” proiektuak jasotzen dituen lanak burutzeko baimen baldintzatua.
- **Urriaren 31ko 2018/096 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.eri, “Conexión agua potable red primaria Busturialdea” proiektuak jasotzen dituen lanak burutzeko baimen baldintzatua.
- **Azaroaren 2ko 2018/097 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kreditu aldaketarako espedientearen hasiera.
- **Azaroaren 2ko 2018/098 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Inde Educa S.L. enpresari urriaren 8an egindako esleipena zuzendu eta 768,23 euroko kopurua onartzea.
- **Azaroaren 5eko 2018/099 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek azaroaren 17rako antolatu dituen ekintzetako, Herriko Plaza eta frontoia erabiltzeko baimena ematea.



## **AJANGIZKO UDALA**

- **Azaroaren 5eko 2018/100 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko baimena.
- **Azaroaren 5eko 2018/101 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko baimena.
- **Azaroaren 7ko 2018/102 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko baimena.
- **Azaroaren 7ko 2018/103 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kultur Etxeko beheko solairuko (eskulan gela kanpo) terrazozko lurraren kristalizazioa Gernika Garbiketak S.L. enpresari esleitzea.
- **Azaroaren 8ko 2018/104 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko emakume taldeari 250,00 euroko laguntza ematea.
- **Azaroaren 8ko 2018/105 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Azaroaren 8an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/17 faktura erlazioaren onarpena.
- **Azaroaren 14ko 2018/106 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maierek aurkeztutako birjarketa errekurtsioa onartu eta espedientearen kaduzidada aldarrikatzea.
- **Azaroaren 14ko 2018/107 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek 2. Nabearen eraikuntza lanetan egindako aktuazioak legez kanpoko aitortu eta legeztapenerako agindua.
- **Azaroaren 16ko 2018/108 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Sutearo EPSVri 2019ko otsailaren 2an, goizeko 11 :30etik aurrera Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzeko baimena.
- **Azaroaren 21eko 2018/109 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 29ko Goiti baserriko estalkiaren erreteila lanetarako baimena.
- **Azaroaren 21eko 2018/110 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko baimena.
- **Azaroaren 21eko 2018/111 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko baimena.
- **Azaroaren 21eko 2018/112 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Azaroaren 21ean Ogasun Batzordeak onetsitako F/2018/18 faktura erlazioaren onarpena.
- **Azaroaren 26ko 2018/113 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Busturialdeko eskualdeko enplegu plana dela eta, Ajangizko udalari 2017-2018 ekitaldiari dagozkion 242,42 euroak ordaintzea, Ajangizen planean duen %0,40ko partaidetzan oinarrituta.
- **Azaroaren 27ko 2018/114 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bide hegalen garbiketa lanak Desbroces Ordorika enpresa esleitzea, 2018ko azaroaren 21eko 74 zenbakidun aurrekontuan oinarrituta (Azaroaren 26ko 1146 sarrera zenbakia) (2.356,20 €).
- **Azaroaren 28ko 2018/115 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ormetxe baserriaren beheko solairua birgaitzeko egindako lanen bukaera baldintzatua onartzea.
- **Azaroaren 21eko 2018/116 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kreditu aldaketarako espedientearen hasiera.
- **Azaroaren 28ko 2018/117 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kreditu aldaketarako espedientearen onarpena.
- **Azaroaren 30eko 2018/118 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** B.J.T.k egindako eskaera onartu eta 2018ko urriko Zumba ikastaroko erreziboa zuzentzea, interesdunari 2,50 euro bueltatuz.

### **3.- LANPOSTU ZERRENDAN HIZKUNTZA ESKAIZUNEI BURUZKO ALDAKETEN ONARPENA, BEHAR BADA.-**



## AJANGIZKO UDALA

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.2 adierazten duen bezala, Hizkuntza-eskakizunak lanpostua betetzeko eta bertan lan giteko beharrezkoa den euskarazko hizkuntza gaitasun-maila zehazten du. Horren arabera, lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna ezarri behar da lanpostuak betetzen dituen funtzio edota zereginak kontutan izanda.

97.6 artikulua arabera hizkuntza eskakizuna, eta derrigortasun data dagokionean, lanpostu zerrendan agertuko dira.

Lege beraren 14. artikuluan agintzen denez, lanpostu zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartuko dituzte, behin-behingoentzat gordetakoak barne. Eta 15.1.d) artikuluan agintzen denez, lanpostu zerrendek lanpostu bakoitzari dagokionez jaso beharko dituzte hori betetzeko eskatutako baldintzak, hauen artean hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ezarrita badu.

Adierazitakoa kontutan hartuta, Ajangizko Udalak azaroaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailera eskaera egin zuen, lanpostu zerrendan agertzen diren behin-behineko lanpostuei hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data proposatuz:

TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	PROPOSATUTAKO HE
E	Etxez etxeko laguntzailea	2. HE
E	Ofizio laguntzailea	1. HE
C	Administrari laguntzailea	2. HE

Derrigortasun datari dagokionez, osoko bilkurak akordioa hartzen den eguna proposatu da, hau da, gaurko eguna, Eusko Jaurlaritzak gomendatzen duen arabera.

Eskaerari erantzunez, Eusko Jaurlaritzak udalaren proposamena onartzen duen Herri administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendariak sinatutako txostena igorri du udaletxera 2018ko abenduaren 5ean.

Adierazitakoa kontutan hartuta, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko, Hizkuntza eta Politikarako Sailburuordetzako, Herri administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendariak sinatutako txostena aintzat hartuta, bertaratutako zinegotziek aho batez adostu dute:

**Lehenengo.-** Ajangizko lanpostu zerredan agertzen diren behin behineko lanpostuetarako ondorengo hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data onartzea:

TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	PROPOSATUTAKO HE	DERRIGORTASUN DATA
E	Etxez etxeko laguntzailea	2. HE	2018/12/12
E	Ofizio laguntzailea	1. HE	2018/12/12
C	Administrari laguntzailea	2. HE	2018/12/12

**Bigarren.-** Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan dioenari jarraituz, lanpostu zerrenda eta berari dagozkion aldaketak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

### **4.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN (2018/20122 PLANGINTZALDIA) ONARPENA, BEHAR BADA.-**



## AJANGIZKO UDALA

Alkate Udalburuak 2018-2022 plangintzaldirako Ajangizko udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana aurkeztu du, aurretik Ajangizko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko egindako plan eta prozesuen berri emanda.

Ajangizko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko lehenengo plana 2001eko maiatzaren 30ean onartu zuen. Plan horrek bi urterako proposamenak jaso zituen. Plana martxan jarri eta lortutako emaitzak ikusteko 2005ekan balorazioa egin zen. Osoko Bilkurak 2006ko ekainaren 12an onartu zuen.

Balorazio horretan orduko egoera zein zen eta aurrera begirako neurriak proposatu ziren.

IV. Plangintzaldirako planari dagokionez, 2008-2012 bitarteko plana zehaztu eta egokituta, Udalak plangintzaldi horretarako erabilera plana 2008ko abenduaren 22an onartu zuen, eta 2013ko abenduaren 16an, V. plangintzaldiriako plana (2013-2017).

VI. plangintzaldirako, Eusko Jaurlaritzak hainbat gidalerro zehaztu ditu, arlo hauetan jauzi kualitatiboak emateko:

- Hizkuntza eskakizunak
- Borondatek haragoko hizkuntza politika
- Euskarazko komunikazioak
- Ahozkotasuna
- Itzulpen politika
- Dokumentuen estandarizazioa
- Kalitatezko komunikazioa
- Komunikazio digitala
- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak
- Langile eta hautetsi etorri berrientzako protokoloa
- Prestakuntza orokorra
- Kontratazio irizpideak

UEMAk udal langileen eta ordezkarien parte-hartzearekin egin duen Udal erabilera plan honek gidalerro horiek lehentasunezkoak dira.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak dioena betez, Ajangizko Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko planaren txostena Eusko Jaurlaritzako, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalitzeko Zuzendaritzara bidali zuen udalak.

Eusko Jaurlaritzako, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalitzeko zuzendariak azaroaren 29an bidalitako txostenean, zera adierazten zuen: *“HPS begi onez ikusteko Ajangizko Udalak egin duen euskararen erabilera plan-proposamena, lanpostu-zerrenda eguneratu eta dagozkion derrigortasun datak eta hizkuntza-eskakizunak ezarri beharke lituzke”*.

Plan-proposamena onartzeko baldintza bakarra hori izanda, aurreko puntuan azaldutakoaren arabera Eusko Jaurlaritzari behin behineko lanpostuen hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data proposamena egin zitzaion, eta azaldu bezala onartu zuen. Aurreko puntuan eztabaidatu eta onartua izan dela ikusita.



## **AJANGIZKO UDALA**

Adierazitakoa kontutan hartuta eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Potika eta Kultura Sailak bidalitako erantzuna ikusita, berataratutako zinegotziek aho batez onartzen dute VI. plangintzaldirako (2018-2022) Ajangizko Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana.

### **5.- AJANGIZKO UDALERRIA, BUSTURIALDEKO GIZARTE ZERBITZU ELKARGOAN SARTZEKO ESKAERA ONARTZEA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udalak, ongizate arloan sortzen ari diren beharrian berriak kontutan hartuta, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean sartzeko proposamena aztertu zuen.

Alkate udalburuak azaltzen duenaren arabera, Elkargoak bertako kide izateko, baldintza hauek planteatu zituen:

1.- Ajangizko Udala Elkargoan sartzten den unetik aurrera, gizarte zerbitzu guztiak eta udal eskumeneko prestazio ekonomikoak Elkargoak eskainiko ditu zuzenean.

2.- Data horretatik aurrera hasten diren espediente guztiak, Elkargoak jaso, aztertu, ebatzi eta eskainiko ditu, bai barneko pertsonalaren bitartez edo/eta kontratatutako enpresen edo hitzarmendutako entitateen bitartez.

3.- Ajangizko biztanlegoaren portzentaia, Elkargoa osatzen duten udalerrerien biztanlegoarekiko %1,63-koa dela kontutan hartuta, sarrerarekin honako hauek ordaindu beharko ditu:

- Sartu orduko Elkargoak eskuratutako ondasunen balioaren %1,63a, hau da, 3.711,79 euro.

- Urteko diru aportazioa. 2018an udalen aportazioa 1.166.064 eurokoa izan zen. Horri %1,63a aplikatuz gero, Ajangizko Udalari 18.949,43 euro legozkio. Kopuru hau dena den, 2019ko aurrekontua onartzerakoan eguneratuko litzateke.


4.- Lehenengo atalean adierazitakoaren kalterik gabe, honako salbuespen iragankor hauek onartuko dira:

- a) Udala Elkargoan sartzten den unean Ajangizko eskaintzen ari diren etxez etxeko laguntza zerbitzuen eskaintza Udalak mantenduko du.
- b) Kasu hauen berrikusketa, hala dagokienean, Elkargoak burutuko du, Elkargoa arautzen duten arauak aplikatuz.
- c) Berrikuspena burututa, Udalak zerbitzu hori eskaintzeari uko egingo dio eta hortik aurrera Elkargoaren esku geratuko da.
- d) Ajangizko Udala Elkargoan sartzten den datatik bi urteko epean, kasu guztiak berrikusita egon beharko dira, egoera aldatu delako edo/eta ofizioz.
- e) Bi urteko epe iragankor horretan, Ajangizko Udalak Elkargoari egin beharreko urteko diru aportaziotik, bere langileak lan egindako orduak gutxituko ditu.

5.- Ajangizko Udala Elkargoan sartzeak, ez du inolako erantzunkizunik sortuko Elkargoan, ongizate arloan Ajangizko Udalak izan ditzakeen langileei begira.

Baldintzak aztertuta, Alkatetzak, etxez etxeko langilearekin hitz egin zuela komentatzen du, egoeraren berri emateko. Izandako elkarrizketan, langileak proposamena onartu eta lehen baino berandu





## **AJANGIZKO UDALA**

momentua iritziko zela bazekiela komentatu zuen. Alkateak Elkargoarekin izandako elkarrizketetan bertan lan egiteko aukera izan zezakeela komentatu zion, Elkargoarentzat lan egiten zuen enpresaren baten... Langileak argi utzi zuen, ez zuela ez Elkargoan ezta elkargorako lan egiten duen inolako enpresan ere lan egiteko asmorik.

Halaber, gaiak etxez etxeko laguntzailearengan duen garrantzia ikusita, Udal Osoko Bilkurak gaurko egunez Elkargoan sartzeari buruzko erabakia aztertuko zuela ere jakinarazi zitzaion, nahi izanez gero bilkurara etorri eta bere iritzia eman zezan.

Aipatutakoa kontutan hartuta eta Ajangizko Udalak ongizate arloan beharrian berriei erantzuna eman ahal izateko Busturialdeko Gizarte Zerbitzu Elkargoan sartzeko beharra ikusi duela kontutan hartuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartzen dute:

**Lehenengo.-** Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoan sartzeko eskaera onartzea, goian aipatutako baldintzen arabera.

**Bigarren.-** Akta honi eransten zaizkion Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoaren Estatutuak onestea.

**Hirugarren.-** Eranspenaren baldintza ekonomikoak onestea:

Ajangizko Udalak Elkargoan sartzeko unean, aldiz aurretik jarritako kopuruei herriko biztanle kopuruaren araberrako parte hartze portzentaia aplikatuz suertatzen diren kopuruak ordaindu beharko ditu. Kopuru hauek Elkargoak 2019ko aurrekontua onesten duen momentuan eguneratuko dira.

- Sartu orduko Elkargoak eskuratutako ondasunen balioaren %1,63a, hau da, 3.711,79 euro.

- Urteko diru aportazioa. 2018an udalen aportazioa 1.166.064 eurokoa izan zen. Horri %1,63a aplikatuz gero, Ajangizko Udalarari 18.949,43 euro legozkio.


Guztira, 22.661,22 euro. Kontutan hartu beharra dago, onartutako baldintzen arabera, bi urteko epe iragankorrean, Ajangizko Udalak Elkargoari egin beharreko urteko diru aportaziotik, bere langileak lan egindako orduak gutxituko zaizkiola.

**Laugarren.-** Buasturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoren Batzordean, Saioa Etxebarria Bilbao alkate andrea ordezkari izendatzea.

**Bosgarren.-** Saioa Etxebarria Bilbao andreari Elkargoan sartzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko eskumena ematea.

## **6.- GAIKORTASUN EDO ISTRIPU EGOERENGATIK LIZENTZIEN BALDINTZEN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriak jasotzen dituen uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legeak, orokorrean araututa, aldi baterako ezintasun egoeretan Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileek jaso ditzaketan konplementuei limiteak jartzen dizkie.



## AJANGIZKO UDALA

Halabaina, Errege Dekretu Lege berak 9. artikuluko 2. atalean, Administrazio Publiko bakoitzak, bakoitzak bere konpententzietan, gizarte segurantzako erregimen orokorraren menpe dauden funtzionarioek eta bere zerbitzuan dagoen lan itunpeko langilegoak, gaixotasun arrunt edo lanekoa ez den istripu egoeran jaso ditzaketen prestazioak konplementatzeko aukera ematen du, bertan jarritako gehiengo limiteen barruan. 3. eta 4. ataletan berriz, aukera hau administrazio mutualismoko erregimen desberdinetara lotutako langileei zabaltzen die.

Bestalde, aipatutako 9. artikuluko 5. atalean, Administrazio Publiko bakoitzak, bere langileekiko, une bakoitzean jasotzen dituzten ordainsarien, gehienez %100 erarteko konplementuak jaso ahal izateko salbuespen egoera justifikatuak onartu ditzaketela arautzen du, kasu hauetan barne ospitalizazioa eta interbentzio kirurgikoak ulertuta. Oinarrizko regulazio hau, aldi baterako ezintasuna sortzen ez duten gaixotasun eta istripuengatik lanerako ausentziei buruz Administrazio Publiko bakoitzak onartu ditzakeen baldintzak jartzeko aukera arautzen duen 2013 urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 17/2012 Legeko hogeita hamazortzigarren xedapen gehigarriak araututakoa osatzen du.

Hori horrela, Ajangizko udal langilegoari aplikagarri izango zaion honako proposamen hau aurkezten da:

### I.- Xedea eta Aplikazio eremua.

Prozedura Ajangizko Udaleko pertsonal funtzionario eta lan itunpeko pertsonalari izango zaio aplikagarri.

### II.- Aldi baterako ezintasuna sortzen ez duen gaixotasun edo istripua.

Langilea lanera ez datorren egunetan ordainsariari %50eko kitapena aplikatuko zaio.

Deskontu hau ez zaio aplikatuko urte naturalean 6 eguneko absentiari, absentsia hau aldi baterako ezintasuna sortzen ez duen gaixotasun edo istripu bategatik bada, eta beti ere osasun sare publikoko mediko batek egoera hori kreditatzen duen ziurtagiria aurkeztuta.

### III.- Aldi baterako ezintasuna sortzen duen gaixotasun edo istripua.

- Konplementuen ehunekoak:

A) Aldi baterako ezintasuna kontingentzia profesionalen ondorio denean, Gizarte Segurantzak onartzen duen ordainsaria, langilearen ezintasuna sortu den hilabetearen aurrekoan jasotako ordainsarien %100-a lortzeraino konplementatuko da.

B) Aldi baterako ezintasuna kontingentzia arruntengatik bada, ondorengo ordainsari tramo biak aplikatuko dira:

1.- Langilearen ezintasuna sortu den hilabetearen aurrekoan jasotako ordainsarien %100-a lortzeraino konplementatuko da lehen egunetik, honako kasu hauetan:

- a) Ospitalizazioa (ospitalean ingesatuta egotea suposatuko du, ez da nahikoa izango langilea ospitaleko urjentzia zerbitzuetan atenditu izana).
- b) Interbentzio kirurgikoa, ospitalean zein mediku kontsultan egindakoa.
- c) Gaixotasun larria, 1148/2011 EDLko I. eranskinean jasotakoa.



## AJANGIZKO UDALA

- d) Aarriskudun haurdunaldia.
- e) Amatasuna eta edoskitzaroan arrisku egoera.
- f) Kutsapen handiko gaixotasunak, Osakidetzak aldarrikatutako epidemia arriskuarekin edo Toki Administrazio konkretuan inzidentzia berezia duenean.
- g) Ondo osatzen ez badira birgaixotzea sortu ditzaketen gaixotasun edo egoerak.
- h) Medikiak aginduta atsedean justifikatua beharrezko duten egoerak.
- i) Behin eta berriz baja egoerak sortzen dituzten gaixotasun kronikoak.
- j) Mediki tratamendua edo/eta errehabilitazioa eskatzen duten aldi baterako ezintasun prozesuak.
- k) Intentsibo edo inbasibo erako proba diagnostikoak.
- l) Laneko ez diren istripuengatik sortutako lan ezintasun egoerak.
- m) Traumatismoen ondoriozko aldi baterako lan ezintasun egoerak.
- n) Urte natural bakoitzean lehen hiru bajak behar bezala justifikatuta ematen direnean, 20/2010 Errege Dekretuaren efektuekiko salbuespenekoak direla ulertuta.

Aurreko hizkietan aipatutako aldi baterako ezintasun kasuetan ez da kontutan hartuko urte naturalean izandako baja kopurua.

2.- Kasu hauetatik kanpo, ezintasuna sortzen den hilabetearen aurrekoan jasotzen ziren ordainsarien konplementua aplikatuko da, honako portzentai hauen arabera:

- a) Bajaren lehen egunetik hirugarrenera, hau barne, ordainsarien %50a ordainduko da.
- b) Bajaren laugarren egunetik hogeigarren egunerarte, Gizarte Segurantzak onatutako prestazio ekonomikoari gehituta, ordainsarien %75erainoko konplementua aplikatuko da.
- c) Hogeita batgarren egunetik aurrera ordainsarien % 100 erarteko konplementua aplikatuko da.

- Prozedura:

Konplementu ekonomikoa aplikatu ahal izateko, langilean honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

1.- Osasun sare publikoak emandako baja partea, ematen den egunetik hiru eguneko epean.

2.- Ospitalizazioa dakarren gaixotasun arruntagatik sortutako aldi baterako ezintasun egoeretan, baja partearekin batera ospitalak sinatutako ospitalizazio ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Ospitalizazioa baja egoeran suertatuko balitz, ospitalizazio ziurtagiria bajaren hurrengo konfirmazio partearekin aurkeztuko da, behin ospitalizazioa sortuta. Kasu honetan, konplementuaren ordainketa eguneratuko da, langileak bajaren lehen egunetik ordainsarien % 100a jaso dezan.

3.- Gaixotasun arrunt batek eraginda interbentzio kirurgikoa dakarren aldi baterako ezintasun kasuetan, baja-partiarekin batera interbentzio kirurgikoa izan dela ziurtatzen duen mediku agiria aurkeztu beharko da, burututako aktuzioaren detallerik jarri beharrik gabe.

Interbentzio kirurgikoa baja egoera hasitako dagoela emango balitz, mediku txostena baja konfirmazioaren lehen partearekin batera aurkeztuko da, aurreko paragrafoan azaldutako prozedurarekin. Kasu honetan, konplementuaren ordainketa eguneratuko da, langileak bajaren lehen egunetik ordainsarien % 100a jaso dezan.



## **AJANGIZKO UDALA**

4.- Aldi baterako ezintasuna 1148/2011 Errege Dekretuko I. eranskinean jasotako gaixotasun larrietako batek sortua bada, baja partearekin batera aipatu Errege Dekretuak jasotzen dituen gaixotasun larri bat dagoela ziurtatzen duen mediku txostena aurkeztu beharko da, zein gaixotasun konkretu den zehaztu beharrik gabe.

5.- Aldi baterako ezintasuna arriskudun haurdunaldi batek sortua bada, baja partearekin batera arriskudun haurdunaldia dagoela ziurtatzen duen mediku txostena aurkeztu beharko da.

6.- Amatasun kasuetan eta edoskitzaroan arrisku egoera kasuetan, baja partearekin batera egoera hori kreditatzen duen mediku txostena aurkeztu beharko da.

7.- Aldi baterako ezintasuna kutsadura handiko gaixotasun batek sortua bada, Osakidetzak aitortutako epidemia arriskuarekin edo Toki Administrazio konkretuan insidentzia bereziarekin, baja partearekin batera egoera hori ziurtatzen duen mediku txostena aurkeztu beharko da, gaixotasun konkretua zehaztu beharrik gabe.

8.- Gainerako kasuetan egoera kreditatzen duen mediku txostena aurkeztu beharko da, gaixotasun konkretua zehaztu beharrik gabe.

Proposamena botaziora eremanda, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute. Onartutako neurriak, erabakia hartutako hilabetetik aurrera izango dira aplikagarri.

### **7.- UDAL LANGILEEN 2018KO SOLDATEN IGOERA ONARTZEA, BEHAR BADA.-**

Espainiako estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen uztailaren 3ko 6/2018 Legea, 2018ko uztailaren 4an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.


Lege horren 18 Bi artikulua, honako hau xedatzen du:

*“2018 urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1,5 handiagoa izango, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, bai langile kopuruari begira zein antzinasunari begira.*

*Horrez gain, prezio egonkorreko Barne Produktu Gordinaren igoera 2017an %3,1era iristen bada edo ehuneko hori gainditzen badu, 2018ko uztailaren 1etik aurrera beste ehuneko 0,25eko igoera gehituko da.*

*Idatz zati honetan xedatutakoari begira, Barne Produktu gordinaren igoeran, Estatistikako Institutu Nasionalak argitaratzen duen urteko Barne Produktu Gordinaren zenbatespenaren aurrerapena argitaratu ondoren, enplegu Publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko Akordioaren Jarraipen Batzordeari jakinaraziko zaio, eta, hala behar bada, igoera ezartzea onetsiko da., Ministroen Kontseiluak hartutako akordioaren bidez. Akordio hori eutonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioari bidaliko zaie.”*

Ministro-kontseiluak 2018ko uztailailaren 13an onartu zuen langile publikoen soldaten %0,25eko igoera gehigarria.



## **AJANGIZKO UDALA**

Adierazirakoa kontutan hartuta eta Eudel-ek egindako proposamena aintzat hartuta, honako akordio proposamena aurkezten da bozketan:

**Lehenengo.-** 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, udal langileen soldatak 2017ko abenduaren 31ko soldatekiko % 1,5ean igitzea, uztailaren 3ko 6/2016 Legeko 18.BI artikulua xedatutakoa aintzat hartuta.

**Bigarren.-** 2018ko uztailaren 1etik aurrera, %0,25eko soldata-igoera gehigarria onartzea, Ministro kontseiluak uztailaren 13an hartutako erabakian oinarrituta.

Proposamena botaziora eramanda, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

### **8.- 2017KO KONTU OROKORRAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. artikulua araututakoa betez, Ajangizko Udaleko 2017ko kontu orokorrak jendaurrean aurkeztu ziren (2018ko maiatzaren 8ko 87. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

Jendaurreko epean inolako alegazio ezta erreklamaziorik aurkeztu ez zela kontutan hartuta,

Udal Osoko Bilkurak, batzartutako zinegotzien aho batez ebazten du:

2017ko Udal Aurrekontuko Kontu Orokorrak onartzea.

### **9.- 2018KO 2. HIRUHILEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.-**


Idazkari Kontuhartzaileak 2018ko 2. Hiruhileko aurrekontuaren exekuzioari buruzko 2018ko abuztuaren 10ean egindako txostena aurkeztuta eta Ogasun Batzordeak 2018ko abuztuaren 13an emandako oniritzia ikusita, bertaratutako zinegotziak jakitun geratzen dira, honako dokumentazioa aztertu ondoren:

- Diru-sarrera eta gastuen exekuzio egoera
- Diru-zaintzako egoera
- 2018ko ekainaren 30eko Kontaketa Akta
- Hornitzaileei batz besteko ordainketa epea
- Hornitzaile eta kontratistekin egindako eragiketen laburpena

### **10.- 2018KO 2. HIRUHILEKO ORDAINKETA EPEEI BURUZKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Idazkari Kontuhartzaileak, 2018ko 2. hiruhileko ordainketa epeei buruz 2018ko abuztuaren 10ean eginako txostena aurkeztuta eta Ogasun Batzordeak 2018ko abuztuaren 13an emandako oniritzia ikusita, bertaratutako zinegotziak jakitun geratzen dira.

Txostenaren emaitzaren arabera, Ajangizko Udaleko 2018ko 2. hiruhileko datuek zera adierazten dute:



## **AJANGIZKO UDALA**

### 2. Hiruhilekoan:

- 1) Ajangizko Udalak ordainketen %100 legezko epean burutu dituela
- 2) Ajangizko Udalaren ordainketa epearen media 2,3 egunekoa da.
- 3) Hiruhilekoaren bukaeran ordaintzeko dauden fakturen %100 ordainketarako legezko epea barruan daudela.

### **11.- 2018KO 3. HIRUHILEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Idazkari Kontuhartzaileak 2018ko 3. hiruhileko aurrekontuaren exekuzioari buruzko 2018ko urriaren 29an egindako txostena aurkeztuta eta Ogasun Batzordeak 2018ko azaroaren 8an emandako oniritzia ikusita, bertaratutako zinegotziak jakitun geratzen dira, honako dokumentazioa aztertu ondoren:

- Diru-sarrera eta gastuen exekuzio egoera
- Diru-zaintzako egoera
- 2018ko irailaren 30eko Kontaketa Akta
- Hornitzaileei batz besteko ordainketa epea
- Hornitzaile eta kontratistekin egindako eragiketen laburpena

### **12.- 2018KO 3. HIRUHILEKO ORDAINKETA EPEEI BURUZKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Idazkari Kontuhartzaileak, 2018ko 3. hiruhileko ordainketa epeei buruz 2018ko urriaren 19an eginako txostena aurkeztuta eta Ogasun Batzordeak 2018ko urriaren 19an emandako oniritzia ikusita, bertaratutako zinegotziak jakitun geratzen dira.


Txostenaren emaitzaren arabera, Ajangizko Udaleko 2018ko 3. hiruhileko datuek zera adierazten dute:

#### 1. Hiruhilekoan:

- 4) Ajangizko Udalak ordainketen %100 legezko epean burutu dituela
- 5) Ajangizko Udalaren ordainketa epearen media 2,3 egunekoa da.
- 6) Hiruhilekoaren bukaeran ordaintzeko dauden fakturen %100 ordainketarako legezko epea barruan daudela.

### **13.- KREDITU GEHIGARRIEN ERREGIMENAREN BIDEZ IZAPIDETZEN DEN 3/2018 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak azaltzen duenez, Ajangizko Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren behin betiko onarpena eginda, publikatzea baino ez da falta indarrean sartzeko. Plana idatzi duen ekipo erredaktoreak bidali du udaletxera behin betiko dokumentua, eta orain diligentziatuta Bizkaiko Foru Aldundira bidali beharra dago bere publikaziorako.



## AJANGIZKO UDALA

Lana bukatuta ekipo erredaktoreari azken ordainketa egin behar zaiola kontutan hartuta, kreditu aldaketarako espedientea aurkezten da 2018ko aurrekontuan 28.133,99 euro onartzeko.

Horren bestez, Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Halaber aurrekontu-aldaketa honek Ajangizko Udalaren finantza-egonkortasuna abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoak ezarritako terminoetan ez duela konprometitzen adierazten duen Idazkari-kontuhartzaileak iraunkortasunari buruz egindako txostenaren berri ematen da.

Era berean, Ogasun Batzordeak 2018ko azaroaren 8an egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri da.

Eztabaidatu ondoren bertaratutako ziengotziek aho batez onartu dute:

**Lehenengo.-** Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 3/2018 espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIKUNTZAK / AUMENTOS DE CREDITO

Aurrekontu partida Partida presupuestaria	Izena / Denominación	Gehikuntzak / Aumentos
432.60900	Hirigintza Plan Orokorraren erredakzioa	28.133,99 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AUMENTOS ...</b>		<b>28.133,99 €</b>

### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK / RECURSOS QUE LOS FINANCIAN

Kapitulua / Capítulos	Izena / Denominación	Zenbatekoa / Importe
87001	Diruzaintzako gerakina / Remanente de Tesorería	28.133,99 €
GUZTIRA / TOTAL		<b>28.133,99 €</b>

**Bigarren.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

### **14.- 2019 EKITALDIRAKO KULTUR ETXEKO PREZIO PUBLIKOEN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legeko Testu Bateratuak 41. Artikuluan araututakoaren arabera, tokiko entitateek, bere konpetentziadun zerbitzuak eskaintzeagatik prezio publikoak jarri ditzakete, beti ere testu bereko 20.1 B) artikuluan arautzen diren baldintzak betetzen ez baldin badira.



## **AJANGIZKO UDALA**

Administrazio Publikoen Prozedura amankomuna arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 45. Artikuluak jasotakoaren arabera, prozedurak eskudun organuak hartutako erabakia eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea besterik ez luke beharko.

Akta honi eransten zaion proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

### **15.- AJANGIZKO UDALEKO 2018KO KUDEAKETA EKONOMIKO-FINANTZIEROARI BURUZKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.-**

Idazkari Kontuhartzaileak 2018ko abenduaren 4an egindako barne kontroleko txostenaren berri eman da (txostenaren kopia eransten da).

Txostena irakurrita, bertaratutakoek jakintzat jotzen dute beraien burua.

### **16.- AURREKONTUAREN EXEKUZIOAN IZANDAKO OHARREN BERRI EMATEA.-**

Idazkari-kontuhartzaileak azaltzen duenez, 2018 urtean zehar ez dela oharrik egin ezta eragozpenik aurkitu ere.

Bertaratutakoek jakintzat jotzen dute beraien burua.

### **17.- ERREGU ETA GALDERAK.-**

- Alkate udalburuak hitza hartuta, Ismael Oar-Arteta zinegotzi jaunak egindako dei baten berri ematen du. Oar-Arteta jaunak, gaur egun herrian dauden bide gorrietan segurtasuna bermatzeko zerbait egin beharko litzatekeela aipatu ziola komentatzen du, eta bera horrekin bat datorrela aipatzen du. Bertaratutakoei zein proposamen izan dezaketen mahaigaineratzea eskatzen die, denen artean neurri batzuk zehaztu ahal izateko.

Valencia jaunak, batez ere berak Kanpantxu iguruan nabarmentzen duena arazoa komentatzen du.

Alex Zubia zingotzi jaunak, bisibilitaterik ez dagoen tokietan seinaleen bat jarri ahal litzatekela komentatzen du, eta bide hori ez dela bizikletentzako bidea. Bidearen helburua zirkulazioa moteltzea dela, oinezkoei ahal dan neurrian babesa emanez, eta era berean bi ibilgailurentzak gurutzatze tokia bermatzeko.


Alkateak guztiei eskatzen die gaia landu dezatela eta bakoitzak bere proposamenak ekarri ditzala denen artean egoera arautzeko.

- Alkateak berriro ere hitza hartuta, 2019ko aurrekontuak burutu behar direla eta proposamenak aurkezteko eskatzen die bertaratutakoei.





## **AJANGIZKO UDALA**



Valencia jaunak Kanpantxuko frontoian zerbait egin beharko litzatekela aipatzen du, teilatua... baita Arabietako zubiko batzeekin ere. Horrez gain behin eta berriro aipatu duenez, Mendietako frontoiko gradak bi hormetatik urbilegi daudela ere aipatzen du, eta bertako punta zorrotzek arriskutsu egiten dutela bertan jokatzea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da goizeko hamaikak laurden gutxitan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

**ALKATEA**  
Saioa Etxebarria Bilbao

**BITARTEKO IDAZKARIA**  
Saioa Pineda Aranburu